



Herritarren parte-hartzea beharrezkoa, Plan Orokorrean

ASTIGARRAGA
UDALA

7



Badator 5G sarea, telebista eta internet hobetzeko

URUMEA
URUMEA LANEAN

13-15



Ikusteko ordua da

URUMEA
TELESAILATAN ADI(K)TUA

16



Bertso-afaria, 13 urte bete izana ospatzen hasteko

HERNANI
KONTRAKANTXA

2

Sagardoa Urumean barrena, Astigarragatik Donostiara

ASTIGARRAGA
SAGARDOA ROUTE

6

Negulekuetarako izen-ematea ireki da, Hernani eta Ereñotzun

URUMEA
DOBERA ELKARTEA

5

Ekinez gobadari, garbitualdia arimari

Atzo inauguratu zuten azkenean, Astigarragako Ibai Parkea. Eta horrekin batera, Mari Jose Lacadenak andre gobadarien omenez egindako eskultura. Okasioa aprobetxatu zuten, andre gobadari guztien ordezkari, omenaldia egiteko Miren Santa Kruz, Sabina Arruabarrena, Manoli Zabalegi eta Miren Perezi ere.

7

Etxean ariko dira gaur Mundarroko preferenteak eta Hernaniko Euskal Ligako taldea

Mundarroko preferenteek 19:30etan jokatu dute Zarkumendegin, Axularren kontra. Hernaniko Euskal Ligako taldeak, berriz, 16:30etan, Aurreraren kontra, Zubipen. Hernaniko Ohorezko Erregional mailak eta Nazional Jubenilak, berriz, Zumarragan eta Zubietan jokatu dute hurrenez hurren.

ASTIGARRAGA-HERNANI
FUTBOLA

10



Landaren ariko da gaur Hernani, El Salvadorrekin

Indarrak bildutako itzuliko da Ohorezko Mailako taldea Landarera, 16:00etan. Eta beharko du kemena, bigarren sailkatuari aurre egiteko.

HERNANI
ERRUGBIA

10

AGENDA

30

GAUR

10:00

Artisau eta abere-zainak gaur, Ferian

GOIZUETAN



30

GAUR

16:30

'Mr. Link' pelikula, euskeraz

BITERIN



Kontrakantxa Gaztetxearen 13garren urteurrena ospatzeko egitarau berezia prestatu dute.

Kontrakantxa Gaztetxearen 13 urteak ospatzeko, festa giroa

Abenduaren 5eko bertso afariarekin hasiko da festa. Txartelak salgai daude Garin eta Goiz Argin.

HERNANI KONTRAKANTXA

Badator abendua ere, eta horrekin, Kontrakantxa Gaztetxearen urteurren festa. Aurten, 13 urte egingo ditu gaztetxeak, eta hori ospatzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte.

Zuazubiskar, Bizkarra eta Martikorena, bertsoan

Egitarauari abenduaren 5ean emango diote hasiera. Aurrena, 19:00etan, Hilerokoa aldizkariaren ale berria aurkeztuko dute.

Ondoren, 21:00etan, bertso-afaria egingo da. Hiru lagun ariko dira bertsoan: Ane Zuazubiskar, Aitor Bizkarra eta Eñaut Martikorena. Txartelak dagoneko salgai daude garin eta Goiz

Argi tabernetan; bakoitzak 15 euro balio ditu.

Mendi buelta, hitzaldiak, eta gehiago, astebetez

Osteguneko txupinazoaren ondoren, astebetez luzatuko dira hurrengo ekintzak, igandeko mendi bueltarekin hasita. Abenduko bigarren astean egingo dira ekitaldi potoloenak. Besteak beste, okupazioa eta etxebizitzaren inguruko hitzaldia emango dute Gasteizko Etxebizitza Sindikatuko kideek hilaren 13an, herri-bazkaria eta kontzertuak izango dira hilaren 14an... Txartelak salgai jartzean jakinaraziko dute. Eta borobiltzeko, garbiketa deitu dute hilaren 15erako, 18:00etan. **K**

Abenduak 5,
19:00etan, pintxo-potea eta Hilerokoaren ale berriaren aurkezpena.
21:00etan, bertso-afaria.
Abenduak 8,
08:00etan, mendi martxa Adarrara, eta bueltan, bazkaria.
Abenduak 11,
17:00etan, auzolana.
Abenduak 12,
18:00etan, pizza-potea eta argazki erakusketa.
Abenduak 13,
19:00etan, hitzaldia: okupazioa eta etxebizitza problematika (Gasteizko etxebizitza sindikatua).
21:00etan, jantoki-soziala.
22:30etan, Erroka.
Abenduak 14,
12:00etan, Gaztetxea kalera.
14:30etan, herri bazkaria eta Zuttik elektrotxarangara.
22:30etan, kontzertuak.

Euskararen Egunean aldaketak, Udal egutegian

Bi egunez itxi egingo dira udaletxea, Udal euskaltegia, Biteri eta liburutegia. Kiroldegian asteartean goizeko ordutegia egingo dute.

HERNANI UDALA

Abenduaren 3a Euskararen Eguna da, eta Udalak jakinarazi du Udaleko lan egutegian jai-eguna dela. Horrela, aldaketak izango dira hainbat zerbitzutako ordutegietan.

Astelehen eta asteartean itxita, hainbat zerbitzu

Euskararen Eguna jai-eguna denez, «abenduaren 2a ere jai dute udal langile gehienek», eta beraz, hainbat zerbitzu itxi egingo dira astelehen eta asteartean.

Itxiko diren zerbitzuen artean daude udaletxea bera, udal

euskaltegia, Biteri kultur etxea eta liburutegia.

Kiroldegian aldaketa, asteartean

Beste zerbitzu batzuetan ere aldaketak izango dira, baina modu desberdinean. Kiroldegian, adibidez, astelehenean ohiko ordutegia egingo da: 06:45etatik 22:30etara. Baina asteartean, goizez bakarrik irekiko da, 08:30etatik 13:30etara.

Gaztelekua, bestalde, astelehenetan itxi egiten da beti, eta abenduaren 3an ireki egingo da.

Musika eskolan jai-eguna, ostirala

Azkenik, Musika Eskolan ohiko ordutegian egingo da lan astelehen eta asteartean. Baina abenduaren 6an itxi egingo da. Beste zerbitzu guztiak, aldiz, ez; irekita egongo dira. **K**



Aurkitu duten katua etxeren batekoa dela uste dute.

Katua aurkitu dute, Larramendin

HERNANI GALDUTAKOAK
Ostegun gauean katu bat aurkitu zuten Kronika eta Peña Otaño elkartearen artean. Hiruzpalau hilabete ditu, eta

etxe batekoa dela pentsatu dute, erraz gerturatzen delako jendearengana. Jasotzeko, idatzi Katuetxe Elkarteare: katuetxehernani@gmail.com.

Euskeraz asteburuan, umeentzako zinea

HERNANI ZINEA

Gaur eta bihar *Mr. Link* pelikula jarriko dute Biterin 16:30etan, adin guztietako publikoari, eta, bereziki, umei zuzenduta, eta euskeraz ikusi ahal izango da. Bestalde, 16 urtetik gorakoentzat Gasteizen girotuta dagoen *El silencio de la ciudad blanca* jarriko da, gaur 19:30 eta 22:30eta, bihar 19:30etan eta etzi 16:30etan.

Tripontzia txartelek, 94.000 euro sari

Kale Nagusian eta herriko denda eta tabernetan erosi daitezke txartelak, 'Tripontzia: burujabetzara bidean' istorio digitalarekin batean.

HERNANI GURE ESKU DAGO

Gure Esku Dagok martxan jarri du berriro ere, Tripontzia kanpaina. Aurten, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal eta Unai Gaztelumendik osatutako *Tripontzia: burujabetzara bidean* istorio sorta digitala deskargatzeko

kodea daukaten txartelak jarri dira salgai, eta horiekin, 94.000 eurora arteko sarien zozketan parte hartu ahal izango da. Sari nagusia 60.000 eurokoa izango da eta 2.000ko 7 eta 1.500 eta 1.000ko zortzina ere izango dira.

Txartelak salgai daude Adarra, Adarraga, Aliprox, Epele,

Ikus-Makusi, Lurreko, Oa, Peña, eta Ttilin Ttolon dendetan eta Aitan Etxe, Apeadero, Aralar, Deportivo, Garin, Goiz Argi, Guria, Joxe Mari, Kitto, Onddi, Rioja, Rufino, Txintxua, Txilibita, Zinkoenea, eta Zintzarri tabernetan. Ostegunetan Kale Nagusian ere salduko dira. **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, L.
Rekondo eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernani Udalak



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

Bikain




GIPUZKOA

Etorkizuna orain


Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



N K



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN





Osiñagako auzotarrak eta astigartar batzuk ere izan dira Galarretan, bisita gidatua aprobetxatzen.

Erremontea gertutik bizitzeko, beste hiru bisita gidatu aukeran

Tokia dago taldeetan, eta izena eman daiteke gaurko, eta abenduaren 7 eta 14rako. Doan da. Parte hartzeko, jarri Kronikarekin harremanetan.

HERNANI GALARRETA JAI ALAI

Osiñagako auzotarrak izan dira azkenak, Galarretako frontoia eta erremontearen inguruko sekretuak ezagutzeko bisita gidatuarekin gozatu ahal izan dutenak. Pasa den asteburuan izan ziren, eta bisita «oso interesgarria» izan zela aitortu dute. «Jokoan ere ibili gara, ba-

koitzak ahal zuen bezala! Baina oso ondo pasa dugu». Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkiete Oriamendiri, eta «batez ere, Endika Barrenetxeari, bere jarrera eta azalpenengatik».

Beste hiru bisita, aukeran Osiñagakoak ez dira aurrenekoak izan Galarretako bisita gidatuekin gozatu dutenak, eta ez

dira azkenak ere izango, beste hiru bisita egingo baitira.

Horietan aurrenekoa, gaur. Taldea osatu da, baina badago tokia oraindik. Joateko, Kronikarekin jarri behar da harremanetan, 943 33 08 99an edo whatsapp bidez 688 660 714 mugikorrean, edo kronika@kronika.eus helbidean. Banaka, binaka edo taldeka eman daiteke izena.

Gaurko bisitaz gain, abenduaren 7 eta 14ean egingo direnetan ere badago tokia. Arratsaldean egiten dira, 15:00etan hasita. **K**

Gabonak zoriontzeko modu originalena

Besteak beste, estudioa modu benetan originalean apaintzeagatik da ezaguna Eli Gorostegi argazkilari hernaniarra, eta aurtengo gabonetan ere mailari eutsi eta zoriontzeko erretratatzeko pronto dago Txirrita kalean.



HERNANI PUBLIERREPORTAJEA

Beste behin ere, ezin dotore-ago apaindu du Eli Gorostegi argazkilari hernaniarra Txirrita kaleko 11 zenbakian daukan estudioa, eta gabonetako zoriontze pertsonalizatuak sortzeko saio berezi eta zoragarriak eskaintzen ditu, herrian bertan.

Pack desberdinak aukeran Argazki kopuruaren arabera, ko sorta desberdinak daude aukeran Elirenean. 5, 10 edo 12 argazki, prezioaren arabera, eta formatu digitalean editatuak. Horiei, paperean kopiak, anpliazioak, itsasgarriak edota patrika egutegiak ere gehitu dakizkioke.

Aurrez hitzordua, beharrezkoa

Saio haueterako propio prestatutako estilismo bereziak ere baditu Elik estudioan, baina adibidez, modu tradizionalago batean euskal jantziekin egin nahi izanez gero saioa, etxetik prestatuta etortzea eskatzen du argazkilariak.

Argazki saioa egiteko aurrez hitzordua eskatu behar da 688 858 872 telefono zenbakira deituta, eta eskatutako ordenaren arabera emango da zita. 20 €-ko aurrerapena egin behar da hitzordua adosteko unea, dena den, kopuru hori amaierako prezioetik deskontatuko da.

ELI
GOROSTEGI
argazkilari

Txirrita kalea, 11
Hernani

688 858 872
www.eligorostegiphot.com

49. BINAKAKO ERREMONTA TXAPELKETA NAGUSIA 2019

Orona
fundazioa

AZAROAK **30** Larunbata 16:00h.

ERREMONTA BIZIRIK

**JUANENEA
BARRENETXEA IV**

VS

**ANSA II
ION**

**UTERGA
AZPIROZ**

VS

**MATXIN III
ENDIKA**



Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:10€)

%60

etxe onenak

ORIAMENDI
2010

galarreta
JAI-ALAI

Gabonetako oporretan aisialdiaz euskeraz gozatzeko, Negulekuak

Hernanin eta Ereñotzun osatzen dira taldeak, eta aukera dago izena emateko. Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra egingo dira.

URUMEA DOBERA ELKARTEA

Dobera Euskara elkarteak Negulekuak antolatu ditu berriro ere, aurtengo Gabonetako oporretan aisialdiaz euskeraz gozatu ahal izateko. Ereñotzun eta Hernanin osatzen dira taldeak, eta izen-ematea irekita dago denetan.

Kantu, jolas eta irteera txikiak, goizez

Negulekuak abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra bitartean egingo dira, jai-egunak eta astebu-



Tailer desberdinak ere antolatzen dira, Negulekuetan.

ruak kenduta, goizeko 09:00etatik 13:30etara.

Hainbat ekintza egiteko aukera izaten da: ipuin kontakizunak, tailerrak, jolasak, kantu saioak, irteera txikiak...

Izen-ematea, irekita

Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete, dagoeneko.

Negulekuak 3 eta 10 urte bitarteko haurrei (2009-2016 artean jaiotakoei) zuzendutakoak dira. Astebetez izena emateak 50 euro balio ditu, eta bi astetarako, 90; Dobera-Kronikako bazkideentzat, berriz, 40 eta 75.

Doberan utzi behar da izen-emate orria, abenduaren 13a baino lehen. **K**

Eibarko San Andres bertso-paperetan ere txapela azkenean, Legorburuk

Azken bi ediziotan bigarren egin ondoren, txapela irabazi du Iñigo Legorburuk, 'Nire buruaz beste' lanarekin.

HERNANI BERTSOLARITZA

Hogeitabosgarren San Andres bertso-paper lehiaketa antolatu du aurten Eibarko ...eta kitto Euskara Elkarteak, eta oraingoan bai, txapela jantzi du Iñigo Legorburuk. Azken bi ediziotan bigarren egin du, eta aurtengoan sari potoloa jaso du, *Nire buruaz beste* bertso sortarekin.

Lan horretan, Legorburuk eliteko futbolari baten egunerokoa xehetzen du, eta protagonista depresio batean nola mur-



Eibarko '... eta kitto' elkartearen San Andres bertso-paper lehiaketa irabazi du.

giltzen den kontatzen du. Jon Enbeitaren 9 puntuko Munduko ilunabarra doinu bihurrian idatzitako 8 aleko bertso-sorta honetan, Legorburuk famaren argilunak azaldu nahi izan ditu: «fama eta arrakasta pertsonala, beti ez dira eskutik helduta zertan joan».

Saria jasota, bertsoak kantatu zituen Legorburuk, eta ondoren, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Maddalen Arzallus eta Aitor Sarriegi aritu ziren bat-batekoan.

Bigarren saria Jesus Mari Gisasola, *Trunboi* eibartarrak irabazi zuen. **K**

Dantzaldia gaur, Urumea Herri Gunean

HERNANI URUMEA HERRI GUNEA

«Nahi dugun askatasunarekin mugitzeko espazioak behar ditugulako», dantzaldia antolatu dute gaurko Urumea Herri Gunean. «Hemen ez duzu matxirulorik aurkituko», zehaztu dute. Gaueko 21:00etatik aurrera, estilo guztietako musika jarriko dute, eta aukera izango da dantzarako, edota lasai egoteko, pikotoean.

Olatz Zugastik emanaldia, ostegunean

HERNANI MUSIKA

Zuzeneko aurreneko diskoa aurkeztera etorriko da Olatz Zugasti hernaniarra Biterira. Abenduaren 5ean emango du kontzertua, *Orion zuzenean* lana taularatzeko, 20:00etan. Sarrerak Biterin dau-de salgai, 7,5 euroan.

Autobusa, ostiralean Bilbora joateko

HERNANI EH BILDU

EH Bilduk «Euskal Errepublika aldarrikatu nahi du» abenduaren 6rako, «batzuk Espainiako Konstituzioa ospatzen duten bitartean». Hori horrela, Bilbon, eguerdiko 12:00etan Bihotz Sakratutik ostiralean egingo den manifestaziora joateko dei egin du, eta jakinarazi du Hernanitik autobusez joan ahal izateko izen-emate zerrenda Garinen dagoela. «Euskal Errepublika izan behar da euskal herritarren babeslekua: berdinen Euskal Errepublika aldarrikatzen dugu. Enplegu duinak bermatuko dituen, soldata arrakalarekin amaituko duena, emakumeen eskubide guztiak bermatuko dituen, klima aldaketari eta bere ondorioez modu integralean helduko diona...». Hori guztia lortzeko, «EH Bildu egunero ari da lanean, esparru guztietan», gogoratu duenez.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IX. URTEURRENA
Raimundo Mendizabal Lecuona
JAUNA
2010eko azaroaren 30ean hil zen, 73 urterekin
- Goian Bego -
Duela bederatzi urte bilakatu zinen
zeruko izar disdiratsuenan,
eta gaur, gure bihotzetan jarraitzen duzu.
BILOBAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 30ean
Helbidea: Gure Ametsa etxea - Osiñaga auzoa

IX. URTEURRENA
Raimundo Mendizabal Lecuona
JAUNA
2010eko azaroaren 30ean hil zen, 73 urterekin
- Goian Bego -
Orain dela 9 urte joan zinen,
baina zure irrifarra
eta zure bihotz haundia
gogoan ditugu.
ZURE ETXEKOAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 30ean
Helbidea: Gure Ametsa etxea - Osiñaga auzoa

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



Azkenaurreko osoko bilkura egin zuten Astigarragako udal ordezkariak asteartean.

Eraso matxistei aurre egiteko protokoloa, herritarren eskura

Helegiteetarako tarte pasata, behin betiko onartu zituen Plenoak 2020ko ordenantza fiskalak; urtarilaren 1etik aurrera izango dira indarrean.

ASTIGARRAGA UDALA

Hamabi gai mahai gainean ziztuztela eman zioten hasiera asteartean Astigarragako udal ordezkariak urteko azkenaurreko osoko bilkurari, azaroari zegokionari, hain zuzen. Aho batez onartu zituzten gai-ordeneko 11 puntutik 10. 2020ko udal ordenantza fiskalei aurkako botoa eman baitzioten EAJ-PNVko lau zinegotziek.

%2ko igoera orokorra, «gehiegizkoa»

Aurreko akta onartu ondoren ekin zioten udal zerga eta tasen inguruko eztabaidari. Irailaren 24ko Plenoan eman zioten hasierako onarpena 2020ko Ordenantza Fiskalei, eta helegiteetarako dagokion epea pasata, behin betiko onartu zituzten, EH Bilduren eta PSE-EEren aldeko botoarekin.

Hori horrela, %2ko igoera orokorra izango dute Astigarragako 2020ko udal zerga eta tasek. «Azken sei urtetan ez da igoerarik izan, eta KPiren igoeraren galera konpentsatzeko, poliki-poliki igo behar dira», azaldu zuen Xabier Urdangarin alkateak.

Diru-sarrera gutxien dituztenentzat, «hobari sistema» badagoela azaldu zuen, eta sistema hori, «diru-laguntza sistema batekin orekatzea» dela Udal gobernaren asmoa.

Igoera horren aurrean agertu zen Nerea Zusberro, EAJ-PNV-

ren bozeramailea: «ez gaude ados %2ko igoerarekin; gehienez %1eko beharko luke». Eta bereziki kritikatu zuen etxebizitza hutsaren errekargoa: «gehiegizkoa iruditzen zaigu».

Arrobitxuloko igogailurako eta DBHrako, aldaketa

Kreditu aldaketari zegokion hirugarren puntuak; udal gobernuak proposatu zuen bi proiektutara bideratzea aldaketa hori: batetik, Arrobitxuloko igogailua egiteko, «gainkostua izan baitu», eta bestea, DBH egiteko.

Taldearen «harridura» islatu zuen EAJ-PNVren bozeramaileak, «2020ko udal aurrekontuen proposamenean ez baitzegoen partidariak DBHrako». Baina «beti» DBHren alde egin dute, aldeko botoa emango zutela adierazi zuten. Bide batez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duten harremanaz galdetu zion Alkateari.

Urdangarinek erantzun zuen Udal gobernuu uztalean bildu zela Eusko Jaurlaritzako ordezkariak: «bilera horretan ez ziguten esan DBHrik ez zela egingo, baina adierazi ziguten kokalekuak zailtasun batzuk zituela: irisgarritasuna, bata, eta malda, bestea». Horiei aurre egiteko lan teknikoarekin ari direla azaldu zieten, eta azalduko dutela, aurrerago. Bide batez, gainontzeko taldeen «laguntza» eskatu zuen Eusko Jaurlaritzaren «baiezkoa» lortzeko.

Plan Orokorren inguruan, desadostasun politikoak

Nahiz eta aho batez onartu zuten, desadostasun politikoak sortu zituen, baita ere, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idazteko kontratazio-espedienteari zegokion gaiak.

Xabier Urdangarin alkateak adierazi zuenez, aurreko HAPOa eguneratzeko unea iritsi dela uste du Udal gobernuak, eta idazketa lizitaziora atera dute; kontratu hori berrestea da Plenoaren eginbeharra.

Zusberro bozeramaileak posibibotzat jo zuen «generoaren eta euskeraren irizpideak» lizitazioan kontuan hartzeak. Adierazi zuen, baita ere, bere taldea «gogoz» dagoela «ikusteko zein den EH Bilduren eredu».

Andoni Gartzia EH Bilduren zinegotziaren hitzetan, «aurrekoa herritarrei bizkarra emanda egin zen, eta honen helburua da astigartar guztiak asetzeari. Uste dugu lortuko dugula».

Gainontzeko puntuak ere aho batez onartu zituzten: 7 etxebizitza alokairu sozialean jartzea, Astigarraga-Hernani eskola kirola eredu, baita Euskararen eta Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Egunaren eta Boliviako estatu kolpearen kontrako adierazpen instituzionalak ere. Eraso matxisten kontrako protokoloak ere jaso zuen adostasuna: «desiragarria litzateke onartu behar ez izatea», esan zuen Alkateak. **K**

Ostegunean aterako da sagardo berria, Donostiara

Datorren ostiralean hasi eta astelehenera bitarte egingo dute Sagardo Apurua, Donostiako Bulebarrean.

ASTIGARRAGA SAGARDOA ROUTE

Sagardo Apurua antolatu du seigarrenez Sagardoa Routek, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen ordezkariak. Ohi bezala, Donostiako Bulebarrean jarriko du berreraikitako baserri tola, eta makina bat ekintza egingo ditu bertan, datorren ostiralean, abenduaren 6an hasi, eta abenduaren 9ra bitarte.

Sagardoa eta produktuak, Astigarragatik

Urtero bezala, txotx denboraldiaren aurretik egiten den jardueraren honen hasiera Astigarra-

gan izango da, bertatik abiatuko baitira bai sagardo berria, baita baserrietako produktuak ere.

Egun bat lehenago izango da hori, ordea, ostegunean. Arratsaldeko 16:30etan sagardo berria eta produktuak Santio-menditik jaitsiko dira, eta Herri Eskolan geldialdia eginda, herrian zehar ibiliko dira. Ondoren, 17:15etan, produktu horiek, ontzian kargatuko dituzte, Lizeaga parean.

Inaugurazio ofiziala, ostiralean

Ostiralean, 11:30etan iritsiko dira Donostiara, eta bertsotan egingo diete ongietorria, Aitor Mendiluze eta Agin Laburuk. Jarraian, Sagardo Apurua garraiatuko dituzte sagardoa eta produktuak, eta 12:30etan egingo dute jardueraren inaugurazio ofizialeko ekitaldia. Hika teatroaren *Sagar Haragiz*. **K**

Euskeraren Eguna etzidamu, ikasleek

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA

Datorren asteartean, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da Euskal Herri osoan, eta horien artean izango dira Astigarragako Herri Eskolako ikasle eta irakasleak. Haur Hezkuntzako nahiz Lehen Hezkuntza ikasleek erromeria egingo dute astearte arratsaldean. Ikasle eta irakasleen artean egingo dute, eta ez da ekintza irekia izango.

Konfiantza indartzeko, azken tailerra

ASTIGARRAGA TAILERRA

Astigarragako emakume feministen taldeak antolatuta, Konfiantza tailerra egin dute azaroa osoan zehar. Lau saioaren ondoren, gaur egingo dute azkena, goizeko 09:30etatik eguerdiko 13:30ak bitarte. Tailerraren helburua da «onarpenerako kontzientzia eta barne-konfiantza indartzeko tresnak» lantzea.

Ttapa-ttapa egitasmoa, asteazkenero

ASTIGARRAGA TTAPA-TTAPA

Asteazkenero bezala, Udalak Astigarragako adinekoei dei egin die Ttapa-Ttapa egitasmoan parte hartzeko. Goizeko 10:30etan jarri dute zita udaletxeko aurrean, eta handik, ibilalditxo egiten dute bertaratzaren diren adinekoekin, debalde. Azaldu dutenez, adineko edonor dago gonbidatuta parte hartzera.

Marrazki lehiaketa, DBHko eskolaz

ASTIGARRAGA DBH ORAIN

Marrazki lehiaketa jarri du martxan Astigarragan DBH Orain plataformak. Helburua da bai etxeko txikienek, baita nagusienek ere, Astigarragarako nahi duten DBH eskola imajinatzea, eta hura marraztea, beharrezkoa den materialarekin. Ondoren, egindako lanari argazkia atera, eta astigarragadbh@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu dute, abenduaren 13a baino lehen. Hiru sari-dun aukeratuko dituzte, hiru adin-tarte kontuan hartuta: bata, 6 urtetik beherakoena; bigarrena, 6 eta 12 urte bitartekoena; eta hirugarrena, 12 urtetik gorakoena (helduak, barne). Saridunen marrazkiak sare sozialen bidez zabalduko dituztela adierazi dute, eta gainera, leku oso berezia izango dute datozen hilabeteetan egingo dituzten ekintzetan. Herritarrek animatu dituzte lehiaketa honetan parte hartzera.

Plan orokorra jarriko dute abian eta herriaren hurrengo hamarkadako etorkizuna zehaztuko du

Astigarragan, Plan Orokorraren berrikuspena jarriko du abian Udalak, eta herritar eta auzotarren parte hartzea beharrezkoa dela adierazi dute, haien beharretan oinarrituko direlako proiektua aurrera eramateko.

ASTIGARRAGA PLAN OROKORRA

ASTIGARRAGA aldatu egin da azken urteetan, 3500 biztanle izatetik, 7000 izatera heldu baita, EH Bilduko udal gobernu-koek adierazi dute, herriak ora-in beste itxura bat hartu duela, «fisikoki ez dago lekuri». Hori dela eta, Plan Orokorr bat jarriko dute abian, eta horrek Astigarragaren etxebizitza eta jardueraren ekonomiko eremuen garapena zehazten ditu, horrez gain, hirigintza arloko arautegiak jasotzen ditu, landa-eremuaren babes politikoak eta erabilerak mugatzen ditu eta azpiegitura eta zerbitzu publikoen aurreikuspena jasotzen du. Beraz, Plan Orokorr honek, Astigarragako hurrengo hamarkadetakoa norabidea eta lehentasunak zehaztuko ditu. Aldiz, Plan Orokorraren behin betiko onarpena lortzeko, gutxienez, 4 urte behar direla kalkulatzeko da.

Herritarren parte hartzea, beharrezkoa

EH Bilduko Udal Gobernu-koek argi utzi dute, proiektu hone-

tan herriaren parte hartzea beharrezkoa dela. Helburu nagusia, hazkundera bideratzea eta herriaren eta herritarren beharrei erantzutea delako. Horregatik da hain garrantzitsua herritarren parte hartzea, haien nahi eta beharrak ezagutu nahi dituzte, hauen arabera aldaketak egiteko.

Gaur egun abian dagoen Plan Orokorra herritar gehien-ko baten hitza ukatuz egin zela adierazi dute, oraingoan Udal Gobernuak, herritarrekin eta auzotarrekin batera osatu nahi du etorkizuneko Plan Orokorra. Horretarako, «auzoetara gerturatu gara, herritarrekin batzarrak antolatuko ditugu, herriko elkarten parte hartzea bermatuko dugu, eta alternatiba desberdinen aukeraketa, herritarren esku utziko dugu». «Astigarragan inoiz egin den parte hartze prozesu zabalena eta parte hartzaileena izatea nahi dugu».

Helburu ezberdinak, Plan Orokorr berrian

Oso desberdinak izango dira



Plan Orokorr berrian buru belarri ari diren EH Bilduko Udal Gobernuako kideak.

Plan Orokorr berriarenak. Aurreko Plan Orokorrak zerbitzu eta azpiegitura publikoak ahaztuta, «etxebizitzaren neurrigabeko eraikuntza izan zuen helburu bakarra», eta honek, eraikuntza enpresa eta promotoreak bakarrik izan ditu onuradun nagusiak. Plan Orokorr berriak aldiz, etxebizitza berrien eraikuntza mugatuko du, eta astigarragar guztiak jarriko ditu erdigunean, hala nola, haurrak, nerabeak, gazteak, emakumeak eta adinekoak. Haur, nera-

be eta gazteentzako aisaldi espazioak eskainiko dira, gazteen emantzipazioa bideratzeko etxebizitza duin eta eskuragarriak eskaintzen saiatuko dira, emakumeentzako herri-gune seguru eta askea bermatuko da, adinekoentzako zerbitzu eta azpiegitura gehigarri eta osagarriak, osasun etxean ere eskua sartuko da...

Horrez gain, esfortzu handia egingo dutela adierazi dute, «auzoetan kalitatezko bizitza bermatzeko azpiegiturak eta

zerbitzuak ahalbidetzeko». Euskeraren erabilera ere kontuan hartuko da, arriskuan jarriko duen garapen orok baztertzeko eta genero ikuspegia herriaren hirigintza diseinuko atal guztietan txertatzen saiatuko dira.

Amaitzeko EH Bilduko Udal Gobernu-koek azpimarratu dute «herritar eta eragile guztiekin batera, landu osatu, adostu eta erabaki nahi dugu». Horretarako Hirigintza Aholku Batzorde berri batek, Plan orokorraren jarraipena egingo du. **K**

Segurtasunari eta aparkalekuaren arazoari aurre egiteko, hainbat lan

Lanei esker, abiadura murrizteko interguneak jartzeaz gain, aparkalekuak ere jarri dituzte, baita herriko 'puntu beltz' bat ezabatu ere.

ASTIGARRAGA UDALA

«Herritarrei eskaerei erantzuteko eta segurtasuna bermatzeko» helburuekin, hainbat lan burutu ditu azkeneko asteetan Astigarragako Udalak. Ohar baten bidez adierazi duenez, lan gehienak trafikoarekin zerikusia dutenak izan dira.

Egin dituzten trafiko-lanen artean, bi berrikuntza nabarmendu dituzte. Batetik, abiadura murrizteko interguneak jarri dituzte. Hain zuzen, herriko zenbait lekutan jarri dira «segurtasuna bermatzeko»: Portutxo auzoko biribilgunean eta Kale Nagusiko bi puntutan.

Nahiz eta neurri hauek har-

tu diren, Udalak «herritarrei eta ibilgailuen erabiltzaile diren guztiei eskatzen die abiadurarekin arduratsu jokatzeko», eta gogorarazi nahi die, baita ere, «herrigunea 30 km/orduko eremua dela».

Bestetik, aparkalekuaren arazoari irtenbidea bilatzeko ere izan dira lanak. Hasteko, herri sarreran (Donostia ibilbidean) zeuden aparkalekuaren antolaketak berria gauzatu da. Helburua izan da, Udalaren hitzetan, «aparkaleku gehiago sortu eta erreiak estutzea». Horrez gain, Ergobia auzoan ere, aparkaleku berriak sortu dira, errepide ondoan.

Ergobiako plaza ibilgailuen-

tzat itxi izanaren ondorio izan da, bereziki.

Herriko puntu beltzetako bat, kenduta

Beste lan bat ere egin du Udalak, herriko 'puntu beltz' batekin zerikusia duena, hain zuzen. Udalak dioenez, «Kale Nagusiko komun publikoaren sarrera 'puntu beltza' zen herrian. Bi horma artean eta oso ilun zegoen, eta horrek, kezka haundia eragiten zuen». Hori dela-eta, Udalak erabaki du eskailera ondoan dagoen hormaren goiko zatia kentzea; horrek ahalbidetu du argia goitik sartzea, eta ikusgai gelditzea komuneko sarrera.

Datozen asteetan ere, lanekin jarraituko dutela adierazi dute, besteak beste, Martindegiko bidegurutzea egokituko dute eta zenbait asfaltatze lan egin ere. **K**



Dantzaren bidez andre gogoragorien lana ekarri zen gogoragor.

Herritarrei ofizialki irekia, ibai parkea

ASTIGARRAGA IBAI PARKEA

Azken asteetan atzeratu ondoren, atzo inauguratu zuten ofizialki ibai parkea. Bertan izan ziren haurrak zirela andre

gogoragoriei laguntzen ibili ziren emakumeak, M^a Jose Lacadena eskulturaren egilea, Node dantz taldea, Herri Eskolako haur talde bat eta udal ordezkariak.

Jardueraz lepo, urteko azkeneko asteak betea

Gabonetako oporrak eta Euskeraren Nazioarteko Eguna tarteko, makina bat ekintza izango dituzte astigartarrek abenduan.

ASTIGARRAGA KULTUR AGENDA

Lau aste besterik ez dira gertatzen urtea bukatzeko, eta azken txanpa potentea izango dute astigartarrek. Horren islada da, hain zuzen, kultura sailak abendurako aurkeztutako kultur agenda berria.

Palestinako emakumeak, aurreneko protagonistak

Astelehenean bertan estreinatu-ko da agenda, erakusketa batekin. Abenduaren 13ra arte Palestinako emakume errefuxiatuen inguruko aurreiritzi eta estereotipoekin puskatzeko erakusketa jarriko dute, kultur etxean.

Euskeraren bueltan, hurrengoak

Euskararen Nazioarteko Egunak emango dio segida, hurrengo egunean. Bi jarduera antola-

tu ditu euskera sailak ordurako. Batetik, eskertza ekitaldia egingo zaio *ahotsak.eus* proiektuari, arratsaldeko 17:30etan udaletxean. Eta ondoren, *Bakean dagoena bakean utzi* bakarrikzeta eskainiko dute Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai; kultur etxean izango da, 18:30etan.

Horrez gain, abenduan zehar, hainbat Zilegi Eskola ere izango dira, AEK euskaltegiaren eskutik, euskera praktikatutako nahi dutenentzat: hilaren 4an, 10ean, eta 11n izango dira, hain zuzen. Baita Gurasolagun egitasmoa ere, abenduaren 3, 10 eta 17an. Hileko bigarren asteartean, gainera, kareta-tailerra egingo dute.

Haurrentzat ere, ekintza mordoa

Urteko azkeneko hilabete honetan, etxeko gaztetxoek izan-



Abenduaren 24an iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Astigarragara.

go dira protagonista nagusiak. Hasteko, abenduko zubia aprobetxatzeko, zinea izango dute abenduaren 7an, larunbatez. *Elkano lehen mundu bira* ikusi ahal izango dute kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan.

Ipuin ordua ere antolatu du liburutegiak, hilaren 12rako. Arratsaldeko 18:00etatik 18:45era, *Ikusi al duzu lehoia?* ipuina kontatuko die Lur Kortak 3 urte-

tik aurrerakoei.

Horrez gain, Jostailu Truke-azoka egingo du Xaguxarrek, aurtien ere, hilaren 11n eta 13an. Eta Gabonen bueltan, Jolas Aretoa eta Jolas Txiki ere izango dira, beste urte batez.

Gabonen bueltan, azkeneko asteak

Hilabetea, ordea, Gabonek borbilduko dute. *Gabon apartsu-*

ak jaiak emango die hasiera ekintza bereziei; Joseba Barandiaran plazan elkartuko dira herriko musikari, ostalari eta herritarrek Gabonei hasiera emateko.

Santo Tomas Jaia ere aste horretan izango da, 14an; eta Gabonetako kontzertua izango dute, hurrengo egunean. Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak jarriko du azken ginda. **K**

Abenduko agenda

2-13 Erakusketa: Egin eta de-segin. Palestinako emakume errefuxiatuen inguruko aurreiritzi eta estereotipoak apurtzeko argazki erakusketa kultur etxean. Antolatzailea: Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen agentzia.

3 Euskararen Nazioarteko Eguna. Eskertza-ekitaldia. Ahotsak.eus Euskal Herriko ahots-ondarea jasotzen duen web-atariko aurkezpenean egingo da eta atari horretan azaltzen diren Astigarragako hogeita hamar lekukoei beren testigantza eskertuko zaie. Udaletxean, 17:30etan.

3 Euskararen Nazioarteko Eguna. Bakarrikzeta. Bakean dagoena bakean utzi. Elkarrekin jositako sei bakarrikzeta euskera eta generoa umoregai hartuta Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai artisten eskutik. Sarrera: 3 euro. Kultur etxean, 19:30etan.

3-10-17 Gurasolagun. Haurrak eta gurasoak kafe baten bueltan euskeraz mintzatzeko elkargune irekia. Berdin da zein den zure euskera-maila, euskeraz hitz egiteko gogoia baduzu. Hileko bigarren asteartean kareta-tailerra egingo da. Doan. Antolatzaileak: Udaleko euskara saila, AEK euskaltegia eta Xaguxar elkarteak. 16:30etatik 18:30etara.

4 Zilegi Eskola: Sagardo dastaketa. Egoitz Zapiaineke gidatua. Izen-ematea: zilegieskola@aek.eus.

5-8 Barrikotea. Sagardoetxean. Garai batean, elaborazio-lana amaitutakoan, barrika bat muztioarekin bete eta bi aste beranduago festa antolatzen zuten bizilagunen artean. Sagardo Berri-dun barrikotea gaztaintekin jateko usadioa berreskuratuko

da abenduko zubian, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Igandean goizez bakarrik. info@sagardoetxea.com.

6 Aintzinako ohiturari jarraitzeko, Gabonetako pinua apainduko dute sagar eta kandlekin Sagardoetxean eta bisitariek desioak idatzi, pinutik zintzilikatu eta kandela pizteko aukera izango dute urtarilaren 5era arte (943 550 575).

7 Zinema: Elkano lehen mundu bira. Kultur etxean, 17:00etan. Iraupena: 85 min. Sarrera: 2 euro.

10 Irakurketa Kluba. Hilabete honetan Amets Arzallus eta Ibrahima Baldek idatzitako Miñan (Susa, 2019) narratiba liburuen ingurukoa izango da. Saioa Isabel Etxeberriak gidatuko du. Parte-hartze irekia eta doakoa. Liburutegian 19:30etan.

10 Zilegi Eskola. Pau Figueresek Egiako kultur etxean duen erakusketa ikusteko txangoa antolatu da. Erakusketa irudi komertzialen eraginari buruzkoa da eta artistak bere azalpenak emango ditu. Izen-ematea: zilegieskola@aek.eus. Doan. Antolatzailea: Udaleko euskara saila eta AEK euskaltegia. AEK euskaltegian 18:30etan.

10 Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, Udalak estatuko indarkeriaren biktimak izan diren lau astigartar omenduko ditu 17:00etan Joseba Barandiaran plazan: Tomas Alba, Joseba Barandiaran, Agustin Irazus-tabarrena 'Legra' eta Bixente Perurena.

11 Zilegi Eskola. Gabonetako postalak egiteko tailerra Itziar Salaberriaren eskutik. Izen-ematea: zilegieskola@aek.eus. Doan. Antolatzailea: udaleko euskara saila eta AEK euskaltegia. AEK

euskaltegian 09:30etan.

11-13 Jostailuen Trukea. Ikastolako atarian. Jostailuen truke-azoka, zure jostailuak aldatzeko aukera.

11 16:30-18:00, Ekarr jostailuak osatuta eta egoera onean eta truke-txartela jaso.

13 16:30-18:00, Truke-txartelarekin beste norbaitek utzitako jostailuak har litezke.

Antolatzailea: Udaleko hezkuntza saila eta Xaguxar elkarteak.

12 Ipuin ordua: Ikusi al duzu lehoia? (Armando Quintero, Txalaparta). Liburutegian 18:00etatik 18:45era. Kontalaria: Lur Kortak. 3 urtetik aurrerako haurrentzat. Oharra: plaza mugatuak. Gurasoek gonbidapena hartu beharko dute liburutegian, hilaren 9tik aurrera.

13 Apartsuen Jaia, Joseba Barandiaran plazan, herriko komertzio txikian erosketak egitea sustatzeko. 18:00etan, Norberto Almandoz musika eskolaren kontzertuak; 19:30etan, topa herrikoia Petritegi eta Astarbe-ko apartunekin eta ondoren, komertzioetako erosleen arteko zozketaren sariak banatuko dira.

14 Santo Tomas jaia 10:30etan, Foru Plazan. Ikasleek egindako gozoak, txorimaloak, eskulanak, baserriar zapiak nola jantzi eta abarkak nola lotu erakusteko txokoa, trikitilariak, kantu-jaialdia eta 13:30etan, zozketak.

14 Upelio Jaia, 19:00etan. Aurtur Upelio eguna 80ko hamarkadan girotua egongo da eta Astigarragako Kitaldelpare elektrotxaranga lehen kontzertua eskainiko du arratsaldean, eta 00:30etik aurrera. Afarria Zipotza tabernan izango da. Antolatzailea: AGA.

14 Donostiako Mitologik scape roomera joateko irteera antolatu

du Gaztelekuak 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Izena abenduaren 10a baino lehen eman behar da eta prezioa: 15 euro.

15 Gabonetako kontzertua, Andre Maria elizan, 12:30etan. Norberto Almandoz musika eskolako instrumentuak eta Aiztondo eta musika eskolako abesbatzek hartuko dute parte. Antolatzailea: Norberto Almandoz musika eskola eta Aiztondo abesbatza.

15 Azken balea antzerkia. Kultur etxean, 17:00etan. Muxi eta Tomax pailazoek azken abentura. Muxik euskal bale bakarria dagoela irakurriko du eta Tomax konbentzitu ondoren, aitona baporea hartuta Kanadara joango dira plastikoa eta kutsaduraren inguruko arriskuan dagoen azken balea salbatzeko. Sarrera: 2,5 € adin txikiak; 5 euro, helduek.

16 Literatur solasaldia. Liburutegian, 19:30etan. Jorge Carrerok zuzendua, hilabete honetako solasaldia Dola De Jong idazlearen *El árbol y la enredadera* (Siruela) liburuen ingurukoa izango da.

16 2020ko udal egutegia abenduaren 16tik aurrera banatuko da doan udaletxe, kultur etxe eta Astiko elkarte dendetan.

20 Tailerra gazteekuan, 18:00etan. Orodrethek *Beat Box* tailerra eskainiko du, hau da, instrumenturik gabe, ezarriarekin eta ahoarekin musika nola sortu erakutsiko du. Doan.

20 Kirol Eguna, kiroldegian. Mundarro K.E.k antolatuta, eguna afaria eta mozturro lehiaketarekin amaituko da. Izenematea abenduaren 13ra arte.

16:00-17:15, Haurren erakustaldiak.

Saio-irekiak:

18:00-19:00, Strong eta Jump Fit.

18:15-19:15, Ziklo indoor.

19:15, Hiit, Zumba, Bungee eta Ziklo.

24 Olentzero eta Maridomingi, 11:30etan. Olentzero eta Mari Domingi Santiagomenditik jaitziko dira eta ikastolako atarian herriko haurrekin elkartuta herriko kaleetan zehar ibiliko dira. Bukaeran, udaletxeko balkoitik haurrekin batera abestu eta agurtu egingo dituzte. Antolatzailea: Xaguxar elkarteak.

27-28 Jolasak. Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberria plazetan. 11:00etatik 13:30etara, eta 17:00etatik 20:30etara. Astiko merkataritza elkarteak antolatu eta udalak babestuta, ohe elastiko eta puzgarriak jarriko dira herriko hiru plazetan. Horietan doan ibiltzeko txartelak abenduaren 16tik 24ra emango dira Astiko establezimenduetan erostearen truke, baina bertan salgai ere egongo dira.

31-1 Urteberriko Jaia, 01:30etan. Urte berriari ongietorria emateko, Gazte Asanbladak Gaztetopa antolatu du Zipotza tabernan.

HAURREN AISIALDIA EGUBERRIETAN

2-5 URTE: Jolas Txiki kiroldegian Mundarro elkarteak antolatua: joko didaktikoak, lankidetzakoak eta taldekoak. Izenematea abenduaren 2tik 13ra. Bi txanda: abendauren 23, 26 eta 27an; eta abenduaren 30, urtarilaren 2 eta 3an. 09:00etatik 13:00etara.

9-12 URTE: Jolas Aretoa kultur etxean 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 18:30etara. Abenduaren 26, 27, 28 eta 31n. Sarrera irekia eta doakoa.

Goizueta emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren inguruan batu zen

Goizuetan emakumeak antolatzen ari dira eta argi dute indarkeria matxistaren aurrean zero tolerantzia izanen dutela.

GOIZUETA EMAKUMEA

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna izendatu zen 1999an. Egun hori Mirabal ahizpen hilketa oroitzeko aukeratu zen. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako hiru ekintzaile politiko izan ziren eta 1960ko azaroaren 25ean Rafael Trujillo diktadorearen polizia bortizki hil zituen.

Urte horretatik aurrera, emakumeen talde eta mugimendu feministak data hori hartu zuen emakumeenganako indarkeria sexistaren aurkako egun bezala.

Goizuetan ere emakume talde bat elkartzen hasia da, eta



Argazki erraldoia atera zuten pasa den astelehenean Goizuetako plazan.

honen baitan astelehena, azaroaren 25, egunerako mobilizazio polita prestatua zuten. Herriko hainbat txoko more koloreko globoekin apaindu zituzten goizean goizetik eta arratsaldean, globo hauek bilduz, kalejira egin zuten herrian barna.

More koloreko arropak jantzita, argazkia atera zuten bertaratutakoek. Plaza musikarekin girotua egon zen.

Udalak EH Bilduk proposatutako adierazpena onartu zuen

joan den azaroaren 19ko ez ohiko batzarrean.

Ikusten den bezala, Goizuetan emakumeak antolatzen ari dira eta argi dute indarkeria matxistaren aurrean zero tolerantzia izango dutela

Hemendik aurrera ere ekin-tza gehiago antolatzeko asmotan omen dira, autodefentsa feministako formakuntza, besteak beste. Talde irekia da, eta bertan parte hartu nahi duten emakume guztiak besozabalik hartuko dira.

Bakarrizketa, abenduaren 13an

EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA

Udazken kulturalaren aurtengo edizioa amaitzen ari da Ereñotzun. Ekitaldi bakarra geratzen da, *Bakean dagoenari bakean utzi* bakarrizketa eta hori abenduaren 13an eskainiko da Ur Mia elkartearen, 22:00etan. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai dira bakarrizketako protagonistak.

Gizon taldearen abenduko saioa

GOIZUETA UDALA

Hilean behin, aurreneko asteartean, biltzen da Gizon Taldea Goizuetan, bakardedari nola aurre egin lantzeko, konpartitzeko eta harreman sarea sendotzeko. Etzidamu dute hurrengo hitzordua, ohi bezala, goizeko 10:30etatik 12:00etara, Umore Ona elkartearen. Gainera, abenduko saio honetan baloratuko da jarraitu nahi duten edo ez. Azkenengo bi saioetan bakardadea aztertu eta bakoitzarena galdetegi baten bitartez neurtuko da eta ondoren emaitzak baloratu eta komentatuko dira.

Dena prest gaurko Feria Eguna giro zin hobean ospatzeko

Euria egiten badu postu guztiak, 100, eskoletako frontoian jarriko dira, eta aziendak plazan mantenduko dira.

GOIZUETA FERIA

Iritsi da goizuetarrentzako ain kuttuna eta maitatua den Feria Eguna eta ez dago aitzakiarik bertara ez hurbiltzeko. 16garren edizioa da aurtengoa eta dena prest dago ongi irteteko, euria egin ezker ere prestatu dituzte leku alternatiboak. Egun osoan luzatuko da festa.

Goizeko 10:00etan hasiko da feria, eta makina bat artisau posturekin batera, giroa jarriko dute trikitilariak ere. Talogileak ere izanen dira, hamaiketako egin nahi duenarentzat; eta erakustaldiak eskainiko dituzte artisauak, goizean zehar.

Ardi eta behorak kaleetan barrena ikusteko aukera izanen da goizean bertan, artzainek



100 postu inguru jartzen dira Feri Egunean Goizuetako kaleetan zehar.

eginen duten itzuliarekin. Eta haien ondotik, herri kirolariak hartuko dute txanda: desafioa eginen dute, eguerdian.

Esan, euria egitekotan postuak eskoletako frontoian jarriko direla eta aziendak plazan mantenduko dira. Desagertze-kotan egon den Betizua, ferian bertan ikusteko aukera ere izanen da, Goizuetan.

Euria egin ezker bazkaria herriko frontoian eginen da Huts eginen ez duen beste zita,

herri bazkaria izanen da eta kasu honetan euria protagonista bada herriko frontoian eginen da.

Bertako produktuekin osatutako menua prestatu dute: babarrunak, betizu gisatua eta postrea. Arratsaldean, musika saioa ere izanen da, giro ederri segida emateko. Bixentek eskainiko du, 18:30etan hasita.

Feriara gerturatzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek, eta baserritarrez jantzeko deia egin dute. **K**

Bazkideen bazkaria, Gabonen usainean

Abenduaren 22an ospatuko da eta abenduaren 18ra arte dago epea izena emateko Amaia kafetegian.

GOIZUETA UMORE ONA

Urtero bezala, bazkideen bazkaria egiteko hitzordua jarri du Umore Ona elkarteak, urte bukaerarako. Abenduaren 22an eginen dute, igandearekin; eta izenematea zabalik dago. Elkar-tean bertan edo Amaia kafetegian apuntatu behar da, abenduaren 18ra bitarte.

Eguerdiko 14:30etan hasiko dute bazkaria, elkartearen bertan; eta menua zein izanen den ere, jakinarazi dute: zizka-mizkak, paella valentziar erara, postrea, kafea eta kopa. 5 euro izanen dira, eta bazkarian bertan ordainduko da.

Elkartearen sorreratik egin dute urtero bazkaria, eta hasieran oso arrakastatsua izan ba-

zen, behera egin du azkeneko urteotan. Dena den, joan den urtean hainbat aldaketa egin zituzten, bazkide gehiago bazkaria erakartzeko asmoz.

Horrela, larunbatetik igandera pasa zuten, batetik; eta menua puntakoa izatetik, herrikoia izatera pasa zen. Horrekin, bikoiztu egin zen bazkide kopurua: 50 bat lagun elkartu ziren. Aurten berriro ere gora egitea nahiko luke elkar-teak, eta guztiak animatu ditu.

Umore Ona Txapelketa

Aurreko astean hiru egunetan zehar jokatu ziren Umore Ona Txapelketako partidak maila desberdinetan Goizuetan. Aranoa, euria zela eta, Goizuetara pasa ziren.

Aste honetan ez dago partidarik, baino Umore Onako pilotariak badute konpromezua. Aste zehar partidua desberdinak jokatu dituzte eta gaur Donezteben Erreka D taldearen aurka jokatuko du, 12:00etan, Umore Ona A-ko bikoteak hirugarren mailako lehen fasean. **K**

El Salvador aurkari gaur etxean Ohorezko Mailaren bueltan

Bederatzigarren jardunaldiko partidua, Landaren, 16:00etan hasiko da bigarren sailkatuaren kontra.

HERNANI ERRUGBIA

Ia hiru asteko atsedena eta gero Hernaniko talde nagusia berriz ere bueltan da indarberrituta. Azaroaren 9an jokatu zuen azkenengo partidua eta hilabetezko azken egunean, gaur, 16:00etan SilverStorm El Salvador indartsuaren bisita izango du.

Bigarren partidua jarraian izango da etxean jokatu du tena eta oraingoan ere Valladolideko talde bat izango dute aurrez aurre. Gainera, hau ere sailkapenean oso ongi kokatua dago, bigarren, sei partidua irabazi eta bi galdu dituelarik denboraldian zehar. Hernanik ordeza ez du oraindik garaipena ezagutzen eta zortzi partidua galdu ditu.

Ez da aurkari errazena lehenengo garaipena lortzeko, baina Polidorik zuzendutakoak saiatuko dira zaleei aurreneko lau puntuak eskaintzen. Beharra badago.

Hernani azkena dago sailkapenean hiru puntuekin eta jardunaldi honetan arrisku handia dago aurreko sailka-



Landaren oraindik ere lokatza aurkitu dezakete gaurko partiduan.

tuarengandik bi garaipenetara geratzeko. Gero horri buelta ematea zaila izango da. Hala ere, aurkari zuzenak ez dituzte partidua xamurrak.

21 egun hauetan jokalariai erreperatzeko balio izan du. Denboraldia aurrera joan ahala hobekuntza nabaritu da jokoan, baina puntuak falta dira. El Salvadorrek oso talde sendoa du eta 80 minutuetan eman beharko da maila altua irabazi nahi baldin bada.

Bigarren taldea bosgarren garaipenaren bila

Gauzak hobe doaz 23 urtez azpiko bigarren taldearentzat. 14:00etan jokatu du, Landaren, Hernani Atletico San Sebastianek El Salvadorren kontra. Hala ere ez da erraza izango, hemen ere Valladolideko taldea bigarren baitago sailkatuta. Hernani zazpigarrena da eta aukera ona da goiko postuetara hurbiltzeko. Denboraldi eta esperientzi ezin hobea ari dira bizitzen taldeak. **K**

Mundarrok Axular hartuko du Zarkumendegin

Astigartarren partidua 19:30etan hasiko da eta Hernaniko neskek Aurreraren kontra jokatu dute gaur, Zubipen, 16:30etan.

ASTIGARRAGA **HERNANI** FUTBOLA

Futbol jardunaldi garrantzitsua jokatu dute Astigarraga eta Hernaniko futbol talde desberdinek. Etxean Preferente mailako Mundarrok eta Hernaniko bigarren taldeek jokatu dute, baita Euskal Ligako neska hernaniarrek eta etxetik kanpo Ohorezko Erregional mailako Hernanik eta Jubenil Nazionalen taldeak.

Preferente mailan Mundarrok hiru partidua daramatza garaipenik lortu gabe eta horrek sailkapenean hamaikagarren postura jeistea suposatzen du hamaihuru puntuekin hamaika jardunalditan. Gaur, 19:30etan, Zarkumendegin Axularren aurka jokatu du eta aukera dago posturen bat berreskuratzeko. Donostiarrak hiru puntu aurretik daude bederatzigarren postuan eta beraz aurkari zuzenen arteko partidua da jokatu dena.

Maila berdinean Hernaniko bigarren taldeak ere etxean jo-

katuko du. Ordubete lehenago hasiko da partidua, 18:30etan, Zubipen eta aurkaria Oiartzun. Azken jardunaldiko garaipenak auspoa eman die hernaniarrei eta partidua irabazi daitezkeela erakutsi die.

Zumarragan eta Zubietan Ohorezko Erregionala eta Jubenil Nazionala

Etxetik kanpo Hernaniko mutilen lehenengo taldeak jokatu du. Ohorezko Erregional taldeak sei partidua daramatza galdu gabe. Lau irabazi eta bi berdindu ditu partidua horietan eta bolada on horri eutsi nahi dio hamabi-garren jardunaldian.

Horretarako Zumarragan, Argixaon, Urolaren aurka berdindu edo irabazi egin beharko du. Partidua gaur jokatu da, 16:00etan, eta ez da norgehiagoka erraza izango. Zumarragarra ongi kokatuta daude sailkapenean, bosgarren, Hernani baino puntu bat gutxiagorekin. Hernaniren 21 puntuek hirugarren kokatu dute eta aurreneko bi postuetatik gertu dago. Azken jardunaldietan talde sendoa izan da.

Jubenilek berriz asteko partidurik zailena dute. Hauek ere gaur jokatu dute, baina goiztiarrenak izango dira. 10:15etan, Zubietan, Real B liderraren aurka ariko dira. **K**

Binakako hirugarren partidua, Barrenetxeak

Ostegunean bigarren partidua ere galdu arren, puntu indibidualei esker, hirugarren dago.

HERNANI ERREMONTEA

Juaneneak eta Barrenetxeak ostegunean Binakako Txapelketaren bigarren partidua ere galdu egin zuten, baina puntuazio berriari esker atzelari hernaniarra oraingoaz finalerdietarako sailkatua dago. 33-40 galdu zuten Urriza eta Larrañagaren aurka eta atzelarien borrokan, nahiz eta partiduan 33 tantotan geratzeko puntu bakar bat, Larrañaga baino puntuazio hobea lortu zuen. Guztira bost puntu batu zituen eta hi-

rugarren dago sailkapenean hamaika puntuekin. Aurreneko hirurak sailkatzen dira finalerdietara.

Hala ere, partidua irabazi beharrean daude arazoetan ez sartzeko. Gaur dute aukera hori hirugarren jardunaldiaren hasieran. 16:00etan hasiko den jaialdian, Galarretan, Juanenea eta Barrenetxea, Ansa II eta Ionnen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Ez da Binakakoaren partidua bakarria izango. Iragarrita dagoen hirugarren partidua ere txapelketakoa izango da eta bertan Uterga-Azpiroz, Matxin III eta Endikaren aurka ariko dira. Bi bikote hauek dira orain arte sendoen ibili direnak eta laurak sailkatuta daude, oraingoz, finalerdietara. Beste biak Urriza eta Barrenetxea dira. **K**

Hernaniko talde guztiek kiroldegian jokatu dute asteburu honetan

Senior mutilek Bera Bera Bultz izango dute gaur aurkari, 16:00etan eta neska seniorrek Ostadar, bihar, 12:00etan.

HERNANI BOLEIBOLA

Asteburu honetan jokatu duten Hernaniko boleibol talde guztiek Hernaniko kiroldegian dituzte partidua. Bost talde izango dira guztira, batez ere gaur, eta bihar ariko direnak.

Euskal Ligan senior mutilek gaur, 16:00etan, jokatu dute Bera Bera Bultz talde donostiarraren kontra. Aurreko astean lehenengo porrota jasan zuen Navarvoleyren aurka eta gaurko



Jardunaldi honetan Bera Beraren talde nagusia eta liderra hartuko du etxean Hernanik.

partidua, nahiz eta etxean jokatu, ez da errazagoa izango. Bera Bera Bultz da Ligako liderra eta ez du partidurik galdu aurtengo denboraldian. Bostetik bost garaipen.

Bihar egongo den partidua bakarria Hernani eta Ostadarreko neska seniorrena da. 12:00etan hasiko da norgehiagoka eta Lasarte taldea garaitu behar du

Hernanik partidurik galdu gabe jarraitzeko Gipuzkoako senior-jubenil mailan. Lau partidua jokatu dituzte eta denak irabazi. Ez dago lider Arantzazuko Amak partidua bat gehiago jokatu duela.

Infantil nesken bi taldeak eta kadete talde batek Sumarren kontra lehiatuko dute gaur, 13:00etan eta 13:30etan. **K**

Hernaniko Xake Txapelketa bihar erabakiko da azken jardunaldian

Makarov, Edu Sanz eta Xerparen artean dago txapela. Hernaniko Haurren Txapelketa Azkara ere jokatuko da Kixkalen eta saioa 16:00etan hasiko da.

HERNANI XAKEA

Hernaniko Xake Txapelketa iritsi da amaierara. Zazpigarren eta azken jardunaldiko norgehiagokak jokatuko dira bihar, arratsaldeko 16:00etan, Kixkal Tabernan eta Hernaniko Haurren Txapelketa Azkarra ere jokatuko da ordu eta toki berean, 14 urtetik beherakoen artean.

Gero, arratsaldeko 18.30etan egingo da sari banaketa. Sariak



Haurren Txapelketa Azkarra ere jokatuko da Kixkalen.

izango dituzte, bi onenek, Hernaniko onenak, lehenengo emakumezkoak eta txapelketa azkarreko lehenengo bi haurrek.

Txapelketa Makarov, Edu Sanz eta Xerparen artean dago.

Makarovek 5,5 puntu ditu, Sanzek 5 eta Xerpak 4,5. Gainera, Makarov eta Xerparen artean jokatuko dute. Edu Sanzek Martiarena du aurkari beste partida erabakiorrean. **K**

Hernani Getxo B-ren aurka, gaur eguerdian

Igerilekua itxita egongo da gaur 13:00etatik 14:30etara erabiltzaileentzat partidua jokatzeden bitartean

HERNANI WATERPOLOA

Pasa den asteko atsedenaldiaren ondoren waterpoloa berriz ere bueltan da hernaniarrentzat. Gainera, etxean jokatuکو dute Euskal Ligaren Bigarren Mailako partidua, 13:30etatik aurrera igerilekuan.

Oraingo honetan aurkariak bizkaitarrak izango dira, Getxo B. Bigarren mailan hiru multzo daude eta Sestao, Santofia eta Getxo B-rekin batera C taldean dago Hernani.

Bigarren itzulia hasiko da

gaur. Hernaniarrek partidu bat irabazi dute Santofiaen kontra eta berdinduta daude sailkapenean Santofia eta Getxorekin. Sestao da liderra hiru partiduak irabazita. Berdintasun haundia dago taldeen artean eta joanean getxotarrek gol bakarreko aldearekin irabazi zuten euren etxean. Norgehiagoka ia denak erabaki dira gol bat edo biren aldearekin.

Beraz gaurko partidua irabazteko modukoa da eta horrek bigarren postura igotzea suposatuko luke eta aurrera pausoa. jendea animatzera eta kirol desberdin bat ikustera animatzen da taldetik.

Partiduaren ondorioz igerilekua ordu eta erdiz itxita egongo da erabiltzaileentzat. 13:00etatik 14:30etara egongo da itxita kiroldegiko pizsina. **K**

ERRUGBIA			
OHOREZKO MAILA	Hernani-El Salvador	Landaren	Gaur 16:00
SUB 23	Hernani-El Salvador	Landaren	Gaur 14:00
SUB 18	Txingudi-Hernani	Plaiaundin	Gaur 11:45
SUB 16	Txingudi-Hernani	Plaiaundin	Gaur 10:30
FUTBOLA			
NSK. EUSKAL LIGA	Hernani-Aurrera Vitoria	Zubipen	Gaur 16:30
MUT. OHORZEKO ERREG.	Urola-Hernani	Argixaon	Gaur 16:00
NSK. LURRALDE MAILA	Hernani-Bergara	Zubipen	Bihar 12:00
MUT. ERREG. PREF.	Hernani-Oiartzun	Zubipen	Gaur 18:30
MUT. ERREG.PREF.	Mundarro-Axular	Zarkumendegin	Gaur 19:30
MUT. JUB. LIGA NAZIONALA	Real Sociedad B-Hernani	Zubietan	Gaur 10:15
MUT. JUB. OHOR. MAILA	S. Tomas Lizeoa-Mundarro	Berion	Gaur 19:30
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Hernani-Billabona	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. JUB. 1GO MAILA	Mundarro-Sanse	Zarkumendegin	Gaur 17:00
MUT. JUB. 1GO MAILA	Ordizia-Hernani	Altamiran	Gaur 16:00
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Anaitasuna-Hernani	San Juanen	Gaur 09:15
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Ostadar	Zarkumendegin	Bihar 10:00
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Añorga	Zarkumendegin	Gaur 12:00
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Beti Ona-Hernani	Beraunen	Gaur 11:35
MUT. KAD. 1GO MAILA	Lengokoak-Hernani	Cesar Beniton	Gaur 13:15
MUT. KAD. 1GO MAILA	Billabona-Mundarro	Arratzainen	Gaur 11:45
NSK. INF. OHOR. MAILA	Tolosa-Hernani	Usabalen	Bihar 10:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Mundarro	Zubipen	Gaur 10:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Ekintza	Zarkumendegin	Bihar 11:45
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Tolosa	Zubipen	Bihar 16:00
MUT. INF. TXIKI	Mundarro-Igeltegi	Zarkumendegin	Gaur 10:00
MUT. INF. TXIKI	Beti Ona-Hernani	Beraunen	Gaur 16:00
MUT. ALEBINAK A	Añorga-Mundarro	Urnietan	Bihar 10:00

MUT. ALEBINAK A	Urniet-Hernani	Urnietan	Bihar 11:30
BOLEIBOLA			
MUT. EUSKADIKO LIGA	Hernani-Bera Bera	Hernanin	Gaur 16:00
NSK GIPUZKOAKO LIGA	Hernani-Ostadar	Hernanin	Bihar 12:00
NSK KADETEAK	Hernani 1-Summa	Hernanin	Gaur 13:00
NSK INFANTILAK	Hernani 1-Summa 2	Hernanin	Gaur 13:00
NSK INFANTILAK	Hernani 2- Summa 1	Hernanin	Gaur 13:30
ESKUBALOIA			
NSK JUBENILAK	Mundarro-Hernani	Astiggarragan	Gaur 18:00
MUT JUBENILAK	Hernani-Donibane	Hernanin	Gaur 18:45
NSK KADETEAK	Mutriku-Hernani	Mutrikun	Bihar 10:30
MUT KADETEAK	Hernani-Eibar	Hernanin	Bihar 10:15
NSK INFANTILAK	Hernani-Usurbil	Hernanin	Bihar 12:00
MUT INFANTILAK	Egia 2-Hernani	Donostian	Bihar 11:15
MUT INFANTILAK	Hernani-Ordizia	Hernanin	Bihar 10:00
SASKIBALOIA			
MUT. 1GO MAILA	Zarautz-Hernani	Aritzbatalden	Bihar 18:00
NSK. 2. MAILA	Goierri-Mundarro	Urretxun	Gaur 16:00
MUT. 3. MAILA	Oiarso-Mundarro	Galtzarabordan	Bihar 11:45
MUT. 3. MAILA	Alde Zaharra-Hernani	Benta Berrin	Bihar 12:00
JUNIOR MUTILAK	Askatuak-Hernani	Paco Yoldin	Gaur 18:00
MUT. KADETEAK	Goierri-Hernani	Urretxun	Bihar 10:45
MUT. KADETEAK	Mundarro-Eibar	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. KADETEAK	Atletico-Mundarro	Aieten	Gaur 10:45
MUT. INFANTILAK	Easo-Mundarro	Jesuitasen	Gaur 18:00
MUT. INFANTILAK	Easo-Hernani	Jesuitasen	Gaur 12:00
WATERPOLOA			
MUT. EUS. LIGA 2.MAILA	Hernani-Getxo B	Kiroldegian	Gaur 13:30

ESKU PELOTA			
MUT NAGUSIAK	Alde Zaharra/Jon Jara	Egjan	Gaur 16:00
MUT NAGUSIAK	Tolosa/Santxez	Beotibarren	Gaur 10:00
MUT JUBENILAK	Ekain Lizeaga/Tolosa	Txomiñenen	Bihar 10:00
MUT KADETEAK	Tolosa/Saralegi	Beotibarren	Bihar 10:00
MUT KADETEAK	Unai Etxarri/Oiarpe	Hernanin	Gaur 15:30
MUT KADETEAK	Oiera Garaiar/Zazpi iturri	Hernanin	Gaur 15:00
MUT ALEBINAK	Gure Txeru/Joseba Arretxe	Getarin	Gaur 16:00
MUT ALEBINAK	Gure Txeru/Xabier Gomez	Getarin	Gaur 15:30
TXAP OFIZIALA	Alde Zaharra/Jon Jara	Gaskan	Bihar 9:30
TXAP OFIZIALA	Oinatz Insausti/Mikel Lasa	Iruran	Gaur 15:00
TXAP OFIZIALA	Eple/Aimar Mujika	Iruran	Gaur 17:30
TXAP OFIZIALA	Unai Alvarez/Eple	Gaskan	Gaur 10:30
TXAP OFIZIALA	Azkoitia/Xabat Pagola	Gaskan	Gaur 16:00
TXAP OFIZIALA	Endika Arizmendi/Eple	Gaskan	Gaur 17:30
TXAP PRIBATUAK	Txintxurreta-Azpeitia/Ilunpe	Elizaondon	Gaur
TXAP PRIBATUAK	Garaikoetxea-Aiur Elizazu/Ilunpe	Elizondon	Gaur
TXAP PRIBATUAK	Manterola-Martin/Irurita	Elizondon	Bihar
TXAP PRIBATUAK	Jon Jara-Eskuza/Alde Zaharra	Elizondon	Gaur
TXAP PRIBATUAK	Mattin Arluziaga/Z.G.	Sanguesan	Bihar
TXAP PRIBATUAK	Xabier Apaolaza/Z.G.	Sanguesan	Bihar
TXAP PRIBATUAK	Unax Uizi/Z.G.	Sanguesa	Bihar
ERREMONTEA			
1GO PARTIDUA	Goikoetxea V-Arruarte/Urrutia II-Zubiri	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA BINAKAKOA	Juanenea-Barrenetxea IV/Ansa II-Ion	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA BINAKAKOA	Uterga-Azpiroz/Matxin III-Endika	Galarretan	Gaur 16:00
4.PARTIDUA	Segurola-Garces/Aldabe-Agirrrezabala	Galarretan	Gaur 16:00

Beheko postuetan dauden taldeen arteko partidua, Hernanik Zarautzen

Mundarro atzo ilunabarrean aritu zen Ordizian eta Hernanik bihar jokatu du Aritzbatalden.

ASTIGARRAGA HERNANI SASKIBALOIA

Gipuzkoako Lehen Mailako Ligan Hernanik bihar jokatu du, 18:00etan, Zarautzen, Aritzbatalden. Beheko postuetan 11garren dago Hernani eta 12garren Zarautz. Bederatzi partiduetan hiru garaipen lortu dituzte her-naniarrek eta bi zaraustarrek.

Maila berean jokatzen du Mundarro, baina astigartarrak atzo ilunabarrean aritu ziren Ordizian.

Bigarren Mailan dauden Mundarroko neskek Urretxun dute partidua gaur, 16:00etan



Lizeo Santo Tomasen aurkako partidua jokatu zuten pasa den asteburuan.

Bigarren taldeek, 3garren Erreterian Mundarro eta Mailan, bihar dituzte partidua Benta Berrin Hernanik. **K**

Mundarro eta Hernani aurrez aurre ariko dira Astigarragako kiroldegian

Gaur jokatu da neska jubeniletan bizilagunen arteko partidua, 18:00etan.

ASTIGARRAGA HERNANI ESKUBALOIA

Asteburu honetan urteko lehenengo derbia jokatu da Astigarraga eta Hernaniren artean. Neska jubenilen arteko partidua izango da, 18:00etan, Astigarragako kiroldegian izango dena. Bi taldeak Gipuzkoako jubenilen Ligaren lehenengo taldean daude, bi daude lurraldean, eta egoera oso desberdinean daude sailkapenean. Mundarro da favorito argia. Astigartarrak bost partidu irabazi dituzte eta bi galdu, Hernanik berriz jokatu-tako zazpiak galdu ditu.

Hernaniko mutil juben-



Jauzi egin nahi du oraindik ere gorago Mundarro bizilagunen arteko derbian.

lek etxean jokatu dute gaur, 18:45etan Donibaneren kontra. Bigarren fasean sartu berri dira eta fase honetako lehenengo garaipena eskuratu nahi dute. Bi taldeek galdu egin zuten estraineoan eta orain bigarrena jokatu dute aurreneko garaipenaren bila. Bestetik, maila

txikiagoko Hernaniko taldeetan, kadete mutilen, atsedena du talde batek eta besteek kiroldegian jokatu dute bihar, 10:15etan. Kadete neskek bihar, 10:30etan, Mutrikun jokatu dute. Infantilen talde guztiek ere bihar dituzte partidua; mutilen bi taldeek eta neskenak. **K**

Trinketeko Txapelketa hasiko da asteburuan

Ekain Lizeaga errekuperatu da eta igandean jokatu du Txomiñenean, eskuz banaka, Tolosako Saralegiren aurka.

ASTIGARRAGA HERNANI ESKU PELOTA

Ezker hormako Gipuzkoako Txapelketak jokatzen ari dira bai eskuz banaka eta eskuz binaka, maila desberdinetan, eta amaitzeko astirik izan gabe asteburu honetan Gipuzkoako Trinketeko Txapelketa hasiko da.

Ezker horman ia partidu gehienak atzo jokatu zituzten Hernaniko taldekoek, baita Astigarragako Mundarroko pelotariak, baina gaur eta bihar badaude partidua. Ekain Lizeaga astigartarrak bihar, 10:00etan hasiko den jardunaldian, eskuz banakako txapelketaren partidua du Tolosako Saralegiren kontra, Txomiñenean. Mundarroko Jokin Santxezek, nagusietan lehenengo mailan, gaur du partidua, 10:00etan, Tolosako Ander Goikoetxearen aurka Beotibarren eta kadeteetan Saralegi astigartarrak, Tolosako Aranzadi izango du aurrez aurre bihar, 10:00etan, Beotibarren.

Txapelketa pribatuetan zaz-

pi partidu jokatu dituzte her-naniar pelotariak Elizondon eta Zangotzan.

Bestetik Gipuzkoako Trinkete Txapelketa hasiko da. Hernanik bederatzi pelotarien izena eman du: Jon Jara eta Mattin Arluziaga kadeteetan; Aimar Mujika, Oinatz Insausti eta Mikel Lasa jubeniletan; eta Iñigo Labaka, Unai Álvarez, Endika Arizmendi eta Xabat Pagola seniorretan. Gaur Iruran eta Gaskan ariko dira Aimar Mujika, Unai Álvarez, Xabat Pagola eta Endika Arizmendi. Oinatz Insaustik eta Mikel Lasak euren artean jokatu dute eta Jon Jarak bihar Gaskan jokatu du.

Aimar Olaizola eta Salaberriak bigarren partidua dituzte txapelketa profesionalean

Aurreko astean Aimar Olaizolak garaipen estu batekin hasi zuen Binakako Txapelketa Nagusia, Urrutikotxearekin batera eta asteburu honetan, bihar, Sorian bigarren partidua jokatu dute Artola eta Imazen kontra.

Bigarren mailako txapelketan Iker Salaberriak eta Garmendiak galdu egin zuten estreinaldian Eiguren eta Eros-tarberen kontra, baina arantza ateratzeko aukera dute gaur, Errioxako Fuenmayor herrian, 19:00etatik aurrera. **K**

Hernaniko lasterkariak, Txindoki Krosean

Bihar jokatu da, 09:45etatik aurrera, Laboral Kutxa Sariko bigarren proba Ordiziako Oiangu parkean.

HERNANI ATLETISMOA

Gipuzkoako kross zirkuituko bigarren lasterketa bihar jokatu da, 09:45etatik aurrera, Ordiziko Oiangu parkean. Laboral Kutxa Sariko bigarrena da Txindoki Kroso oraindela bi aste Irunen lehendabizikoa jokatu eta gero. Berta Hernaniko korrikariak emaitza onak lortu zituzten Ane Otaegi eta Anartz Artola buru izanda.

Maila guztietan daude ira-

garrita lasterketak; Master sub-16tik hasi eta benjaminak arte, hauek etxekoak bakarrik: 16 urtez azpiko, 18 urtez azpiko, 20 urtez azpiko, senior eta 23 urtez azpiko, infantilak, alebinak eta benjaminak, denak bai mutil eta nesketan.

Ordiziko Txindoki Atletismo Taldeak antolatzen du urtero krosa.

San Silbestrerako hasi dira zapatillak berotzen

Bestetik, Hernaniko lasterkariak hasi dira zapatillak lotzen eta entrenamenduak planifikatzen 2019ko Wukroen aldeko San Silbestreko. Urteroko moduan, abenduaren 31an arratsaldean jokatu da lau kilometrotako ibilbidean. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Garaje marra alokatzen dut Gartzia Goldaraz kalean, Correoseko eraikinean. 75 € hilean.

Deitu: 687 841 817

Etxea salgai Epelen, 51 m2, garajearekin. **Deitu: 672 248 563**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura..... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR

Fronte hotz batek Kantauri itsasoa zeharkatu du eta eguraldiak txarrera egingo du. Lainoak ugari gurean, euria egingo du ugariago. Egunaren amaieran ostarteak agertuko dira. **Min.10° / Max.17°**

BIHAR

Goizean, lainoak eta ostarteak eta ateri, hego-haizea nagusi. Egunak aurrera egin ahala, lainoak ugari-tuz joango dira eta egunaren bigarren partean euritara joko du eta ipar-haizea ibiliko da. **Min.8° / Max.14°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** Garayar: 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-** **Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Gomez Kale Nagusia, 14 (Hernani) 943 554892 **Gauetz: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) 943 336022 **Goizueta:** Nagusia 64 948 514353

5G sarearen etorrera dela eta, lurreko telebista digitala sintonizatu beharko da urtarilaren 24an

Besteak beste 700 Mhz banda libre utzi behar da, 5G sarea zabaltzeko eta horretarako ezinbestekoa da etxez etxe TDT kanalen espekto irrati-elektriko hori askatzea.

URUMEA TELEBISTA

5G sarearen etorrera dela eta, Espainiako Gobernuak hainbat neurri hartuko ditu. Besteak beste, dibidendu digitala -700 Mhz banda- libre utziko dute eta horretarako ezinbestekoa izango da etxez etxe lurreko telebista digitalak sintonizatzea. Hori gainera, urtarilaren 24an bertan egin behar da Gipuzkoan. TDT kanalen espekto irrati-elektriko hori askatzera behartzen du.

Zer da Bigarren Dibidendu Digitala? Zertan eragiten dio komunitateko antenaren instalakuntzan?

700 Mhz banda da edo 49 kanala eta aurrerantzean 5G sarea zabaltzeko erabiliko dute eta horrek banda zabala landa-eremuetara heltzea bermatuko du. Lurreko telebista sistema analogikotik digitalera igarotakoan, espekto erradioelektriko askoz gutxiago okupatzen dute emisioek. Libre geratu den maiztasun tartea (300 - 375 MHz) operazioaren «dibidendu» modura ulertzen da: dibidendu digitala.

Egun, 700 Mhz bandaren zati bat lurreko telebista digitalaren sareak erabiltzen du, baina 2020ko ekainaren 30erako -Europar Batasunak hala aginduta- libre geratu beharko da 5G telefonia mugikorrerako zerbitzuak banda horren bidez zabaltzeko.

Gipuzkoan, maiztasunak berrantolatzeke, ETB (1, 2, 3 eta 4)-eko 50 kanalak itzali behar dira eta (TDP, Clan, Ten eta DKISS)-eko 54 kanalak, eta 22 eta 28 kanalengatik ordezkatu

beharko dira: La1, La2, Clan, 24 h eta TDP, Clan, Ten eta DKISS ere bertan emitituko dira hurrenez hurren.

Zergatik gomendatzen dute sintonizazioa urtarilaren 24an egitea, eta ez amplifikadoreak instalatzean 22 eta 28 kanalak komunitatean?

Hori da 50 eta 54 kanalak itzaltzeko eguna, kanal bakoitzean telebista emisora desberdinen berrantolaketa eguna.

54garren kanaleko emisora (TDP, Clan, Ten eta DKISS) 28ra pasatzen dira.

50 kanaleko emisora (ETB (1, 2, 3 eta 4) 48ra pasatuko dira.

48 kanaleko emisora (La1, La2, Clan, 24H) 22ra igaroko dira.

44 kanaleko emisora 32koekin trukatu dira: Gol, DMax, Disney, Paramount honakoe-kin: A3 serieak, Be Mad, R. Madrid TV eta Ten.

48 eta 54 kanaletako emisora simulcast-a dute 22 eta 28 kanaletakoekin urtarilaren 24ko itzalaldira arte.

Zergatik gomendatzen da itzalaldiaren ondoren bigarren ebakuntza bat egitea?

50 eta 54 kanaletako amplifikadoreak deskonektatzeko eta afekzioak eragin ez ditzaten 5G interferentzien bidez komunitatearen telebista-seinalean.

Telekomunikazio enpresa batzuk etxebizitza batean, batez ere lehendakariarenean, eskuzko sintonizazio bat egingo dute. 54. eta 48. kanalak kenduz, instalazioa itzaltzeko egunera arte monitorizatuta edukitzeko eta sor litezkeen gorabeherak filtratzeke. **K**




5G sarea ezartzeko libre utzi behar da eta antenak moldatu.



Egokitu zure antena gurekin

Larramendi 3, behea. HERNANI


943 900 211



INTERFONIA
Bideo interfonia



SEGURTASUNA
Bideo zaintza
Sarbidetza kontrola



SAREAK
Zuntz optikoa
UTP
WIFI



ANTENAK
TDT
Satelitea

«Herriko komertzio txikiei lagundu behar zaie, konturatu behar gara zerk sortzen duen herria»

50 urte darama Hernaniko Telemar dendak funtzionamenduan, eta bertako jabeen semea den Patriciok, orain arteko istorio, arazo eta pasadizoak kontatu dizkigu.

HERNANI TELEMAR

1969 urtean jaio zen Telemar, eta gaur egun ere tinko jarraitzen du, herritarrei etxetresna elektronikoen zerbitzuak eskainiz.

«Hasiera batean, errazagoa izan zen denda eramatea, salmentetan nabaria zen eta «oro-korreetan, ez zegoen hainbeste tresna elektronikorik». Telebis-tak, eskuz egiten ziren, eskuz montatu eta etxeetan ezarri. Materiala oso garestia zen, eta «ez zen erraz lortzen». Hala ere, Patriciok adierazi du, bere gurasoek ordu asko sartu zituztela lanean eta horrela atera zutela denda aurrera.

Teknologia berriekin, egokitzea

Azken urteetan, teknologia etengabe aldatu eta aurreratu da, eta horrek, hainbat egokitzapen eragin ditu, baita pertsona zein komertzioetan. Telemarren kasuan, Patriciok argi utzi du, hasiera batean, Telemarren telebisten reparazioa egiten zela, «zerbitzu tekniko bat eskaintzen genuen, eta horrez gain antenak beti egin izan dira gurean». Teknologia aurrera egin ahala, Telemar ez zen atzean gelditu, eta teknologia digitala sortu zenean, «bultzada handia izan zuen gizarteak, satellite bidezko programak sartu ziren, eta hor dendan bi atal sortu genituen: atal bat denda, eta bestea, zerbitzu teknikoak». Denbora horretan, «telebisten muntaiak egiteaz gain, antenen muntaiak eta beste hainbat berrikuntza gehiago egitera bultzatu gintuen teknologia digitalak». Garai honetara egoki-

tzeko, hainbat material berri erosi zituzten Telemarrekoek, hala nola, fibra optiko fusioneak, zertifikadoreak... Gaur egungo etxeak beste modu batera daude eraikita, eta horrek ere, Telemarren egokitzea ekarri zuen, «gaur egun sartzen da fibra, eta horretarako materiala prestatuta eduki behar duzu». Patriciok adierazi du, denborarekin aldaketak beti datozela, eta haietara egokitzea besterik ez dagoela, «lehen ez zeuden antena parabolikoak, eta sartu zirenean hauek jartzen hasi ginen, eta orain fibrarekin ere berdina egiten dugu». Patriciok argi utzi du, oraingo garai berrietara erraz egokitu dela, azkenean egunerokotasuna apurtzeko, «gauza berriak egitea eta probatzea oso ondo dago, horrek dibertitzen nau».

Helduak eta teknologia berriak

«Nabaritzen da, 55 urtetik gorakoek, zailtasuna dutela gaur egungo teknologiek ibiltzeko». «Bezero asko oraindik ez daude ohituta Interneten ibiltzen, eta horrelako tresneriak erabiltzen ere ez».

Premium saria, Telemarren 50 urteengatik

Urteko batzarra egin zuen, apirilaren 7an, Gipuzkoako Merkataritza Federazioak, Tolosako Topic museoan. Eta iazko balantzea eta aurtengo helburuak eta asmoak ezagutzera ematearekin batera, errekonozimendua egin nahi izan zieten, Gipuzkoako hainbat merkatariri.

Haien artean, Telemar etxe



Telemar denda hasierako urtetan, eta eskuinean, lehenengo Antena parabolikoa, Eurospor ikusteko.

«Denborarekin beti datoz aldaketak, eta haietara egokitzea besterik ez dago»

tresna elektronikoen denda izan zen saritu bat.

«Poza ematen du honelako sari bat jasotzeak, azkenean Gipuzkoa mailan lokal edo komertzio bat mantentzea zaila da, eta aurrerantzean hori gehiago baloratuko da». Sari hau jaso ostean, Telemarrekoek, herritarren eta bezeroen babesa jaso zuten, «jendea dendara etorri eta denda nola ireki zen gogoratzen dute askok». Betiko bezeroak ere pozez zeuden saria jaso zuenean Telemarrek, «guk eskertzen dugu orain arte jasotako fideltasuna, jendea mantendu egin da eta asko 50 urtetan zehar etorri dira, telefono mugikorra erostera batzuk, beste batzuk satelitea jartzeko...».

Lanari esker, lagunak

Patriciok bere lana oso gustuko du, «jendearekin harremana



Gaur egun berri, mota guztietako teknologia eskaintzen dute

edukitzea gustatzen zait, haien etxetara joan, zerbait konpondu eta tratua egin, gertuko lana da gurea, eta lagun asko egin ditut lanari esker, eta hori eskertzekoa da».

Dena dago hobetzeko

«Denborarekin ohartzen zara beti daudela gauzak hobetzeko, eta

ikasteko». Eta hori gertatzen da herrietako komertzio txikiekin, asko dagoela hobetzeko.

Patricioren ustez, herriko denda txikiei garrantzia eman behar zaie, «denon artean herriko komertzio txikiei bultzada bat eman behar diegu, azkenean konturatu behar gara, zerk sortzen duen herria». K

Bigarren dibidendu digitala 2DD urtarilaren 24an bukatuko da

TELEMARren zure komunitateko antena egokitu dezakegu.

Estatuaren diru-laguntza ere kudeatu dezakegu



Telemar
Antenas

Elkano Kalea, 13 HERNANI

943 55 33 99

5G-ak abiadura, latentzia eta aldi bereko konexioak hobetuko ditu

Abiadura azkartzea ez da hain garrantzitsua baina bai saturaziorik ez sortzea edoizein gailuetan edo ibilgailuetan erreakzionatzeko astia izatea.

URUMEA 5G TEKNOLOGIA

Hiru dira 5G-ak 4G-arekiko eka-rriko dituen hobekuntzak; lehe-na ez da esan duten bezain ga-rantzitsua izango, baina beste biek iraultza nabarmena era-gingo dute; adimen artifiziala garatzeko oinarria 5G teknolo-gia izango da.

Hauek dira hiru berrikun-tza horiek: Abiadura: Segundu-ko zenbat mega dekargatu edo bidali ditzakegun, sistemaren abiaduraren araberakoa da. Hala, 5G-a 4G-a baino 10 aldiz azkarragoa izango da. Teorian, 4G-arekin seguduko 400 mbps deskargatu ditzakezu; bada 5G-ari esker, segunduko 4 edo 5 gbps deskargatu ahalko dira. Hobekuntza honek erakargarria irudi dezake, baina mugikorren ez du zentzu handirik, da-tuak segituan agortuko lirite-keelako.

Latentzia: Hau bai dela iraultza garrantzitsua. Latentzia dei-tzen zaio mugikorrari agindu bat ematen zaion unetik egiten duen arteko denbora tarteari; adibidez, mezu bat idatzi de-netik mugikorrak hartzaileari bidali arteko tarte horri. 5G-ak sekulako hobekuntzak ahalbi-detuko ditu latentzian. Egun, 4G-ak ez du 20 mili segunduko latentzia gainditzen (mili se-



Ibilgailu autonomoak garatuko dira eta arruntetan erreakzio denbora irabaziko da.

gundo bat = segundo baten mi-larena). Hain zuzen, gure begiek 13 mili segundo behar dituzte irudi bat antzemateko; beraz, oraindik latentzia hori gure be-gien abiadura baino mantsoa-go da. 5G-arekin, dirudienez, 1 edo 2 mili segundoko latentzia lortuko dute; horrek esan nahi du informazioak sarean batetik bestera hainbat salto egin ahal-ko dituela gure begiek ezer su-matu gabe.

Bi autok elkarrekin «hitz egin» dezakete

Irudikatu une batez elkarren artean talka egitera doazen bi auto; latentzia horri esker, bi autoek elkarrekin «hitz egin»

ahalko dute, gertatzera doan is-tripuz abisua pasa eta erreak-zionatzeko astia izanez. Edo irudikatu hemengo ospitale batean dagoen zirujau bat joys-tick bidez Australian dagoen pa-ziente bat operatzen; latentziari esker, egiten duen mugimendu bakoitza une-unean gertatuko da munduaren beste puntan. Doitasun bera izango dute esate baterako salbamendu droneek.

Gune batean aldi berean konektatutako gailu kopurua: Hau da hirugarren hobekuntza na-barmena. Esaten dutenez, egun gune batean aldi berean konekta-tu daitezkeen gailu kopurua 100 aldiz biderkatuko da 5G-ari esker, saturaziorik eragin gabe. **K**

Urrutiko ebakuntzak, anbulantzietan iraultza eta ibilgailu autonomoak

4.0 industria eta robotika ere izugarri garatuko dira. Hainbat kilometrora dagoen zirujau batek aginduak eman ahalko ditu denbora errealean.

URUMEA 5G GARAPENA

Ikusi daitekeenez, 5G-a orain-dik iristeke dago, eta ez du mu-gikorren belaunaldian sekula-ko iraultza eragingo; bai ordea adin artifizialaren garapenean. Bosgarren belaunaldiari esker, 4.0 industria, 5G teknologiare-kin konektatutako auto autono-moak, urrutiko ebakuntzak eta robotika izugarri garatuko dira.

Teknologia horri esker, hainbat kilometrotara dagoen zirujau aditu batek aholkuak eta aginduak eman ahal izango dizkie denbora errealean eba-kuntza-gelan dauden doktoreei,

egia bihurtuz 'urruneko kirur-giaren ametsa'.

Konektatutako anbulantziak

5G anbulantziei buruz hitz egi-ten entzuteak bikaina dirudi, gurpilen gainean bizitzak sal-batzen lagun dezakeen aurre-rapena baita. Eta, zalantzarik gabe, hori da etorkizuneko tek-nologiarako bururatzen den aplikaziorik onenetakoa.

Begi hutsez anbulantzia nor-mala da, gaur egun erabiltzen egon daitekeen edonor bezala, baina zatirik garrantzitsuena ikusten ez dena da; 5G anbulan-tzien helburu nagusia komu-

nikazio eta jarduteko gaitasun haundiagoa izatea da.

Horrela, anbulantzia horien barruan azkar konektatu ahal izango da ospitaleekin, datuen transmisioan abiadura haun-dia dagoelako; beraz, agertoki berriak irekitzen dira, hala nola informazioa ia berehala bidal-tzeko aukera, baita zuzenean jasotzekoa ere, bideo-dei baten, aholku baten edo laguntza gehi-garri baten bidez esku-hartze batean.

Gainera, 5G anbulantziak inguruarekin ere komunikatu ahal izango dira, ibilgailuak edo azpiegiturak izan; larrialdietako ibilgailu bat hurbiltzean, eta ez dagoela mugitzeko tarterik galtzadako beste ibilgailu ba-tzuk pasatzen uzteko arazo iza-teari utziko dio. **K**



Agerian
Idoia Telleria Maritxalar

Ama autonomoa ala ama eta autonomoa?

Amak eta autonomoak garen emakumeak benetan gure denboraren jabe gara ala lan-bateragarritasun faltsuaren amua irentsi dugu?

Gure arbaso feministek ema-kumeon askapenaren alde jo-ta-ke borrokatu zutenean ez zekiten zein zaila izango zen lana eta amatasuna uztartzea. Egun, haurrak izateko adi-nean dagoen edota jada ama den emakume batek ilargira joatea bezain zaila du enplegu bat aurkitzea; horregatik, auto-nomo egitea ia aukera bakarra du, seme-alabak zaintzeko den-bora izan nahi badu bederen.

Amatasuna ez da balo-ratzen, nahiz eta gure ondo-rengoak etorkizun hurbilean ekonomiari eutsiko diotenak izango diren. Zer espero daiteke egunen batean ama izan ahal izateko beren obuluak izozte-ra behartzen gaituen gizarte batengandik? Amatasuna atze-ratzea eta, ondorioz, ugalkorta-sun-tratamenduetara jotzera derrigortzen gaituen antola-kuntza-sistema batengandik?

Ni ama eta autonomoa naiz. Nire lana aurrera atera-tzeko zain eta muin dihardut egunero, nire seme-alaben zaintza inori egokitu gabe. Ez da, ordea, inolaz ere erraza. Bizkortu daitezela gobernuak eta enpresak, inork eusten ez duen gizartea balantzaka egin eta amiltzen baita.

María Rodríguez Mourinho.

CINCO PRODUCCIONES

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturola.eus


Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAS
BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21
Zikunaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus



Anbulantzietan iraultza suposatzen dezake eta bizitzak salbatu.



Ikusteko ordua da

Gaurko artikulua, aldarrikapen kutsu batez beterik dator. Azaroaren 25ean, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Gaztea irratiko programan tematika hau tratatzen duten telesailen errepaso bat egitea eskatu zidaten. Eta bertarako prestatu nuen zerrenda egin nuenean bezala, bidezkoa iruditzen zait idatzi honetan ere hau jorratzea, badelako bai interesgarria eta baita beharrezkoa ere.



AITOR CARACCILO

TELESAILTAN ADI(K)TUA

Egia esango dut, ez naiz ez pertsona jakintsuena eta agian ezta hoberena ere, halako gaia taxuz tratatzeko, baina bertan esan nuen moduan, agian hori da askok egin behar dugun ariketa edota ahalegina: gori-gorian dagoen arazo sozial hau, egun bakar batean ikusarazi beharreko gauza baino, gure egunerokotasunean tratatu, jorratu eta bilatu; eta egiten ditugun (ditudan) jarrera toxikoak aztertut, gure eta gure inguruko artean kontzientzia aldakor bat sortzeko, gurea da-eta, hau guztiz aldatu eta konpontzeko zeregina, eta bai, gizonezkoen ari naiz batik bat. Gure ezjakintasun eta ez-ikusteak ekarritako ondorioengatik.

Gauzak horrela, goazen mamira. Galdetuko banizue indarkeria tratatzen duen fik-

ziorik ikusi duzuen azken aldian, erantzuna baiezkoa izango litzateke? Askok agian, ez duzue gogoan izango edo kostako zaizue hala den jakitea. Baina badira azken urteotan hainbat telesail, arazo hau tratatu edota beraien istorioan barneratua izan dutenak. 13 reasons why, You, Jessica Jones, The fall, Top of the lake, Vis a vis, One Mississippi, Las chicas del cable edota Sweet/Vicious produkzioetan, maila ezberdinetako indarkeria pairatutako protagonistek honi nola aurre egin behar zioten ikusteko aukera genuen. Kasu bakoitza ezberdina bada ere, errealitate horrek dakartzan arazoak aurkeztzen zizkiguten fikzioak dira.

Hemengo artikulua batean aipatutako Netflixeko *Creedme* (*Unbelievable*) telesailak ere, bere lehen atalean modu oso gordin batean eramaten gintuen neska gazte batek jasan-dako bortxaketaren ostean eginitako salaketan jasan beharreko oinazealdi administratibo eta mesfidantza polizialek barne. Gerora, telesail horrek break aukera ematen zuen ikusteko, ikertzaile berrien eskutik, gertatutakoaren eta beste hainbat kasuren erasotzailea nola harapatzen zuten.

Egungo deriba soziopolitikoak ikusirik, zientzia fikzio bezala sortutako liburuen adaptazioek egi bihurtzeko aukera dute.

Zer esan *Big Little Lies*, HBO zerbitzuko miniserie multipremiatuak aurkeztzen zigun beste arazo aski ezagun bati buruz. AEBtako auzo erresidentzial idiliko horietako batek ematen zigun itxura perfektuaren atzean, denon itsutasunaren aurrean gertatzen diren biolentzia kasu eta gertakariak azaleratzen zituen. Etxeko ate atzean, isilpean gertatzen diren sufrimenduek dakarten espiral negatibo amai-gabeak ekar ditzakeen ondorioak.

Edo ITV kate ingelesaren *Liar*, gurean HBOren eskutik; zita perfektu baten ostean, irakasle den Laurak Andrew medikua salatuko du bortxatua izan delakoan. Biktimizazioa jorratzean baino, bi aldeek duten jarreraren zentratzen den telesaila dugu. Egia zein den jakiteko kapitulu kapitulu saltoka ibiliko dena, gertakariaren gauera eta ikerketaren artean. Gure gizartean gertatzen diren aurreiritzi eta gaizki egiteak palestra-

ra atera nahi dituen telesaila dugu, gure pentsatzeko modu batzuen kritika bihurtuz.

Eta zer esan *The Handmaid's Tale* bezelako distopiaz. Ezinezkoa iruditzen zaigu kupula militar eta erlijioso batek estatu kolpe bat eman ostean eta ugal-kortasun arazoak direla medio, haurdun geratu daitezkeen emakumeak esklabutzat hartu eta giza inkubadoratzat tratatzea, ezta...? Infernu hori bizitzea nolakoa izango litzatekeen tratatzeko ausardia duen telesail indartsu nahiz krudela. Tamalgarria da gaur egungo deriba soziopolitikoak ikusirik, zientzia fikzio bezala sortutako liburuen adaptazioek egi bihurtzeko duten gertutasun edo aukera...

Azkenik, *Maltratadas* telesail argentinarraren antologikoa aipatu nahiko nuke, tamalez gurean

ikusteko zaila bada ere, interneteko gune piratak ezagutzen dituztenentzat ez, beste guztientzat. 13 kapitulu bikainetan gertatzen diren egoera eta indarkeria kasu ezberdinak jorratzen zituen. 2011 urtekoa dugun telesail honen gidoilari bat den Esther Feldmanek, telesail honekin lortu nahi zutena azaltzeko esan zuenarekin bukatu nahiko nuke artikulua hau: «*Kontua da klike batzuk baztertzea eta pentsatzeari uztea genero indarkeria baliabide gutxi emakume bat jotzen duen gizon mozkor baten emaitza baino ez dela. Mundu mailako arazo bat da, ertz asko hartzen dituen (..); estalita dagoena agerian uzteko aztarrika hastean, konturatzen zara denok uste duguna baino ohikoagoa dela*». Beraz, hasi gaitzen danok pala hartuta, zulatzen. **K**



Netflixeko 'Creedme' ('Unbelievable') telesaila.



'The Handmaid's Tale' telesaila.